



**MOVIMIENTO SCOUT CATÓLICO**

**Egile materialak:**
Castores: Encarnación María Gil
Lobatos: Guillermo Forrich
Exploradores: Ana Vieites
Pioneros: Eli Piedra
Rutas: Eli Piedra
Kraal: José Felipe Fernández
Introducción: José Felipe Fernández

**Material itzultzaileak:**
Euskera: Miren Leanizbarrutia
Gallego: Antía Vilas
Valenciano: Doro Palomares


SCOUTS Mundu hobea eraiki
MSC

# ÍNDICE


| | | |
|---|---|---|
| **01.** | **Sarrera** | **Pág. 02** |
| **02.** | **6 eta 8 urte bitarteko haurren tartea** | **Pág. 04** |
| 02.1 | Lehenengo astea | Pág. 04 |
| 02.2 | Bigarren astea | Pág. 08 |
| 02.3 | Hirugarren astea | Pág. 13 |
| 02.4 | Laugarren astea | Pág. 18 |
| **03.** | **Adin tartea 9 eta 11 urte bitartekoa** | **Pág. 25** |
| 03.1 | Lehenengo astea | Pág. 25 |
| 03.2 | Bigarren astea | Pág. 29 |
| 03.3 | Hirugarren astea | Pág. 33 |
| 03.4 | Laugarren astea | Pág. 37 |
| **04.** | **12 eta 14 urte bitarteko adin tartea** | **Pág. 43** |
| 04.1 | Lehenengo astea | Pág. 43 |
| 04.2 | Bigarren astea | Pág. 48 |
| 04.3 | Hirugarren astea | Pág. 52 |
| 04.4 | Laugarren astea | Pág. 57 |
| **05.** | **15 eta 17 urte bitarteko adin tartea** | **Pág. 63** |
| 05.1 | Lehenengo astea | Pág. 63 |
| 05.2 | Bigarren astea | Pág. 67 |
| 05.3 | Hirugarren astea | Pág. 71 |
| 05.4 | Laugarren astea | Pág. 75 |
| **06.** | **18 eta 21 urte bitarteko adin-tartea** | **Pág. 82** |
| 06.1 | Lehenengo astea | Pág. 82 |
| 06.2 | Bigarren astea | Pág. 86 |
| 06.3 | Hirugarren astea | Pág. 90 |
| 06.4 | Laugarren astea | Pág. 94 |
| **07.** | **Kraal eta helduak** | **Pág. 100** |
| 07.1 | Lehenengo astea | Pág. 100 |
| 07.2 | Bigarren astea | Pág. 103 |
| 07.3 | Hirugarren astea | Pág. 106 |
| 07.4 | Laugarren astea | Pág. 109 |

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

## SARRERA LAGUNGARRIEI

Beste urte batez, Abendualdia bizi izango dugu, Belengo bakearen argiaren etorrera bizitasunez ospatzeko prestaketa. Jesukristo munduaren Argiaren etorreraren itxarotearen isla den itxarotea.

Baina itxaropen eragilea da bai kristau guztientzat eta, jakina, bai eskaut mugimendu katolikoarentzat ere. Gure bizitza eta gure ingurua eraldatuz itxaron.

Aurton, "bihotzak batuz, mundua argituz" goiburuaren haritik, gauzak aldatzea lortzeko, mundu hobea egiteko ahaleginean guztion batasuna ezinbesteko dela jabetu eta jabearazi nahi dugu.

Gero eta iluntasun gehiago duen mundu hau itxaropena ereitera deitutako bihotz askoren argiaz bete dadila.

Lagungarriak Abendualdiko lau astetan banatu ditugu, aste bakoitzari delako asmo bat egotziz:

• Lehen astea: "Batu". Badakigu anitzak eta desberdinak garena, eta hau egundoko aberastasun izanda, ezinbesteko dena beti batasuna bilatzea. Batasuna gure munduaren arazoak atzemateko eta sormenaren bidez konponbideak bilatzeko.

Bakea eraikitzeko batasuna ez dadila utopia izan, gizarte eta gizadi bezala egin behar dugun bidea baizik.

• Bigarren astea: "Bihotzak". Azalekoari lehentasuna ematen zaion munduan, barrualdearen, sakonaren, benetan garrantzizko denaren balioa aldarrikatzea dagokigu.

Jesusek ez zien itxurei begiratu, beti begiratu zion pertsonaren barrualdeari. Eta guk, zeri begiratzen diogu?

• Hirugarren astea: "Argitu". Argi izatea, argi egitea da gure eginkizuna. Kristauok Kristo den argi hori agertu behar dugu. Ongia gure munduan hazteko eta bizirik irauteko bide dela hots egitea da argi izatea.

• Laugarren astea: "Mundua". Hortxe agertu behar du batasunak, hortxe iritsi behar dugu gizon eta emakumeen bihotzera, hortxe egin behar dugu argi… Barruko guztia bizi egin behar dugu eta egia bihurtu "guztiona den etxe" honetan.

Material honek lagunduko ahal dio eskaut eta elkarte askori munduaren argia denaren etorrera bizitasunez prestatzen eta beren munduak aldatzen mundua eraldatu ahal izateko!

# LA LUZ DE LA PAZ DE BELÉN

SCOUTS® MSC

SCOUTS Mundu hobea eraiki | MSC

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**6-8 URTE**

**LEHEN ASTEA. 2025eko AZAROAK 30**

## Ebanjelioa.

*Mateo 24, 37-44*

Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan.

Uholdearen aurretik, jan-edanean ziharduen eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte; eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eraman zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute; errotan ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute.

Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko.

Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.

*Autor: Encarnación María Gil*

*Traductor: Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: “Etsaitutako anaiak”.

Etsaitutako anaiak.- Esopo.

Adineko gizona guztiz atsekabeturik zen hiru semeak ika-mika zebiltzalako. Gero eta etsaituago zeuden eta, ondorioz, haiei lezioa ematea pentsatu zuen.

Basora joan eta adar-mordoa batu zuen. Sorta egin eta gogor lotu zuenean, hiru semeei deitu zien.

– Begira, adarrok erditik apurtu behar ditut, baina zaharra naiz eta ezin dut. Nork lagun nazake?

eme nagusiak, harro, adar-mordoa hartu eta bitan zatitzen saiatu zen, baina nahiz eta indar asko izan, ez zuen lortu.

Orduan, erdiko anaia saiatu zen, besteei erdeinuz begiratuz, eta honek ere ez zuen lortu. Txikiak hartu zuen adar-sorta azkenean.

– Mengel hutsak zarete… utzi niri -esan zuen anaiak gutxietsiz.

Biziki saiatu arren, ez zuen lortu. Orduan, adineko gizonak, adarrak askatu eta semeen artean banatu zituen. Horrela apurtu zituzten adarrak erditik.

– Ikusi duzue? -esan zien gizonak-, banan-banan, erraz hauts daitezke adarrak. Batera, apurtezinak dira.

Horrelakoak zarete zuek ere, adar hauen modukoak.

# Jarduera: “Sugea”

**Helburua:**
Guztiok elkarlanean aritu.

**Lagungarriak:**
Sugea, hau da, soka, jokalari-kopuruaren araberako luzera duena, metro bat bi jokalari bakoitzeko.

Soka txikiak, jokalarientzat bana, bakoitza 40 zentimetro luzerakoa eta 50 cm.tik 50 cm.ra soka handian lotuko direnak. Soka txiki hauen bidez gidatu eta manipulatuko da sugea.

**Jarduearen garapena:**
Partaideak txandaka ipiniko dira sokaren alde batean eta bestean, bakotxak soka txiki bati oratuz.

Eragileak erakutsiko die sugeak egin behar duen bidea: aulkiaren azpitik igaro, armairuaren inguruan bira bat eman.

Lehen jokalariak buruari oratuko dio, hau da, sokaren aurreko zatiari eta berak markatuko du bidea eta gainerakoak koordinatu egingo dira.

Sugearen gorputzak ez du oztopo bakar bat ere ukituko…, horrelakorik gertatuz gero, berriz ekingo diote ibilbideari eta ahalik eta denbora gutxien burutzen saiatuko dira.

Eztabaidan jardun daiteke banako eta taldeko erantzukizunaz, batasunak dakarren indarraz…

SCOUTS Mundu hobea eraiki MSC

# Otoitza.

Aita zerukoa,
izarrak gidatuta Errege Magoak Belenera iritsi ziren bezala, zure zeruko argiak gida dezala Eliza katolikoa Abendualdian, kristau guztiok bat eginda bide egin dezagun.

Errege Magoek bat eginda Kristo gurtu zuten bezala, hurbil iezaguzu zure semea, elkarrengandik gertuago egonik, Elizarentzat eta kreazio osoarentzat nahi duzun batasunaren ikur izan gaitezen.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu.

Amen.

LA LUZ DE LA PAZ DE BELÉN

SCOUTS Mundu hobea eraiki | MSC

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**6-8 URTE** **BIGARREN ASTEA. 2025eko ABENDUAK 7**

## Ebanjelioa.

*Mateo 3, 1-12*
*Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan honela hots eginez: «Bihozberri zaitezte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza». Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak:*

"Ahots bat oihuka ari da basamortuan: Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari".

Joanek gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari.

erusalem hiriko, Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen, eta, beren bekatuak aitortzen zituztela, Joanek bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

Fariseu eta saduzear askori, bataiatzera zetozela ikustean, honela esan zien Joanek: «Sugekumeok! Nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela?

"Abrahamen ondorengo gara" esatea. Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak. Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko: fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da. Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitezten; baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuago da, eta ni ez naiz inor hari oinetakoak eranzteko ere;

Horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa: alea mandioan jasoko du; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko».

*Egilea: Encarnación María Gil*
*Itzultzailea:Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: “Arraina”

Itsasoan etengabeko jarduera dago, uste baino biziagoa; itsasoko abere guztiek dute egitekoren bat eta, nahiz eta azaletik ikusita jira eta buelta eta askatasun osoz igerian baizik ez dabiltzala iruditu, guztia dago ondo antolatuta.

Arrainek, esate baterako, hainbat joan-etorri egin behar izaten dute igerian, guztiek ez badute ere hori betetzen.

Duela denbora asko, bazen igeri egiterik nahi ez zuen arraina. Nahiago zuen algen gainean etzan eta bizitza pasatzen ikustea.

Behin batean, bihotz oneko marrazo urdina igaro zen handik eta harriturik geratu zen arraina etzanda ikusteaz. Gaixorik zegoen galdetu zion eta ezetz eta igerian baino hobeto zegoela han etzanda erantzun zionean, lezioa ematea bururatu zitzaion marrazoari.

Arrain-sardaren buru zenarekin –“arrain lodi” deitzen zuten, ez nagusia zelako, pisutsua baizik- hitz egitera joan eta arrainaren egoeraren berri eman zion.

Nagusia tristetu egin zen taldekide bat gaizki jokatzen ari zelako.Arratsalde horretan, arrainaren bila joan eta paseoa ematea proposatu zion.

Arrainak ezin izan zion ezetzik esan, nagusiaren esana egin beharra zegoen-eta. Buelta ematen ari zirela, arrain nagusiaren adiskide ugarirekin egin zuten topo, guztiek begirunez agurtu eta biziki poztu ziren hura ikusteaz.

Zer dela-eta agurtzen zuten hainbesteko berotasunez galdetu zion arrainak nagusiari eta berak ere txikitan ez zuela igeri egiterik nahi izaten erantzun zion eta egun batean, buelta txiki bat eman zuela, egunez egun, joan-etorria luzatzen hasi zela eta, azkenean, itsas hondoa oso-osorik ezagutu zuela.

Guztiek agurtzen zuten, bazekiten-eta apurka-apurka alferkeria gainditu eta arrain handi, “arrain lodi” bihurtu zena. Arrainak, orduan, nagusitan begirune hura jasotzea gustatuko litzaiokeela pentsatu zuen eta egunero igeri egiten hasi zen.

Auzotarrak agurtzen zituen eta gero eta gusturako sentitzen zen, gero eta igerialdi luzeagoak zituelako eta horrek gainerako itsas-abereen poza eragiten zuelako.

Eta marrazo urdinari eskerrak eman zizkion hain adiskide ona izateagatik eta berak jakin gabe laguntzeagatik.

# Jarduera: “Mandala”

**Helburua:**
Sormena landu. Artikulazioen motrizitatea trebatu, autoestimua hobetu.

**Lagungarriak:**
Mandala inprimatuta duen folio bana partaideentzat, errotuladoreak, koloretako arkatzak edo argizariak.

**Jardueraren garapena:**
Partaideei mandala bana eman, musika lasaigarria edo Gabon-kantak ipini eta ahopean komentatu beraiekin Eguberri hauetan bizi izango dugunari buruz.



## Otoitza.

Jesus, emadazu ur garbiaren iturria bezain bihotz garbi eta gardena.

Emadazu tristuraz goza ez dezan bihotz apala;
erreparorik gabe ematen dakien bihotza;
inongo onurarik ahaztuko ez duen eta
jasotako inongo kalterengatik gorrotatuko ez duen bihotz handi eta leiala;
emadazu bihotz otzan eta apala, zurea bezalakoa.

AMÉN.

*LA*
**LUZ**
*DE*
*LA*
**PAZ**
*DE*
**BELÉN**

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**6-8 URTE**

**HIRUGARREN ASTEA. 2025eko ABENDUAK 14**

## Ebanjelioa.

*Mateo 11, 2-11*

Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen kartzelan, eta bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzera: «Zu al zara «Etortzekoa, ala besteren baten zain egon behar dugu?».

Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuena: itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie.

Eta zoriontsua sinesteko oztoporik niregan aurkitzen ez duena!». Haiek alde egitean, Jesus Joani buruz hitz egiten hasi zitzaion jendeari: «Zer ikustera irten zineten basamortura? Haizeak kulunka darabilen kanabera? Zer ikustera irten zineten bestela? Soineko apainez jantzitako gizona? Jantzi apainekoak errege-jauregietan bizi ohi dira.

Zer ikustera irten zineten, bada? Profetaren bat? Bai, noski, eta profeta baino ere handiagoa. Hartaz dago idatzia Liburu Santuan: Begira , neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik; hark prestatuko dizu aurretik bidea.

Benetan diotsuet: Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik; hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena ere hura baino handiagoa da».

*Egilea: Encarnación María Gil*

*Itzultzailea:Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: “Lazo horia”.

Bazen behin herri bat itsasaldean eta bertan Joan izeneko mutikoa bizi zen.

Joan ez zen besteen modukoa; sekretu berezia zuen: gauza onen bat egiten zuen bakoitzean, txikia izanik ere, txinparta beroa sentitzen zuen paparrean, eguzki-izpiaren antzekoa.

Egun batean, parkean jolasean zebilela, bere adiskide Anari jaten ari zen txokolatezko izozkia jausi egin zitzaiola ikusi zuen Joanek.

Biziki nahigabetu zen eta, bitan pentsatu gabe, motxilatik sagarra atera eta eskaini egin zion irribarretsu.

—Tori, Ana -esan zion adeitasunez-. Sagarra gozoagoa da banatzen bada!

Anak gorantz begiratu zuen, begiak argitu zitzaizkion eta sagarra hartu egin zuen. Une horretan, Joanek txinparta berezi hori sentitu zuen, baina oraingoan, gauza berezia gertatu zen.

Izpi txiki baten antzeko argi distiratsua atera zen bere paparretik eta airean egon zen une batez, desagertu arte. Joanek begiak kliskatu zituen. Irudikatu egin ote zuen?

Biharamunean, etxerako bidean zihoala, lorontziz beteriko kaxa astuna altxatu behar zuen Inma lore-saltzaileak laguntza behar zuela ikusi zuen. Nekatuta zela ematen zuen eta ezin zuen kaxa altxatu.

Laguntza behar duzu, Inma andrea? —galdetu zion Joanek, eskua eskaintzeaz batera.

Inma andreak irribarre egin zuen, arinduta. -Bai, mutil, aingerua zinateke niretzat!

Joanek kutxa igotzen lagundu zion andreari. Astuna zen, baina inoiz baino sendoago sumatu zuen txinparta bere paparrean.

Berriro! Argi distiratsua, atzokoa baino apur bat handiagoa, atera zen bere paparretik eta zerurantz igo zen. Joan aho-zabalik geratu zen, ez zen ametsa izan!

Egun horretatik aurrera, bere inguruan arreta gehiago jarri zuen. Ikastetxeko atezainari lagundu zion enkarguekin; parkeko Eduardo adineko gizonari jausi zaion liburua jaso zuen; margoak utzi zizkion margorik ez zuen lagunari, eta Maria Jose irakasleari lorea utzi zion idazmahaian.

Eta ekintza bakoitzaren ostean bere paparretik ateratzen zen txinparta handituz zihoan eta argiak gero eta distiratsuagoak ziren.

Eta sor zitzakeen txinparta argitsua ez ahazteko, lazo horia ipini zuen kamisetan eta aldean zeraman kendu gabe.

Horrela, besteen alde on egin zezakeela ahaztuz gero, lazo horiari begiratu eta biziki ahalegintzen zen bere paparretik gero eta txinparta handiagoa atera zedin.

# Jarduera: “Faroltxoa”

**Helburua:**
Sormena sustatu.

**Lagungarriak:**
Orria faroltxoaren eskemarekin (partaide bakoitzarentzat 1), errotuladoreak, itsasgarria.

**Jardueraren garapena:**
faroltxoaren eskemaren orrialde bana eman partaideei eta baita errotuladoreak ere, beren gustura apain dezaten.

Margotu ondoren, lerro zuzenetatik moztu eta lerro etenetatik tolestu faroltxoa egiteko.



## Otoitza.

Jauna, munduarentzat argi izan nahi dut,
nire ingurua dena argitzen duen argi bihurtzeko.

Espiritu Santuaren bitartez,
nire argiak distira egin dezala gizakien artean,
nire egintza onak eta jokabide zuzenak ikus ditzaten eta horien bitartez poza eman diezaioten Jainkoari.

AMÉN.

LA LUZ DE LA PAZ DE BELÉN

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**6-8 URTE**

**LAUGARREN ASTEA. 2025EKO ABENDUAK 21**

## Ebanjelioa.

*Mateo 1, 18-24*

Jesus Mesiasen sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen; eta, elkarrekin bizitzen hasi aurretik, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez.

Jose, Mariaren senarra, gizon zuzena zen; ez zuen hura salatu nahi, eta isilean uztea erabaki zuen. Asmo horrekin zebilela, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengoa, ez izan beldurrik Maria zeure emaztetzat hartzeko, harengan sortua Espiritu Santuarengandik baitator.

Semea izango du, eta zuk Jesus ezarriko diozu izena, berak askatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia, Jaunak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen: «Hara, birjinak haurdun gertatu eta semea izango du, eta Emmanuel jarriko dio izena (Emmanuel izenak «Jainkoa gurekin» esan nahi du)».

Esnatzean, Jaunaren aingeruak agindua egin zuen Josek, eta Maria emaztetzat hartu zuen.

*Egilea: Encarnación María Gil*

*Itzultzailea:Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: "Maria eta arraina"

Kondairaren arabera, zintzo-zintzoa zen neskatoa bizi zen Nazareten. Oso gustuko zuen amari eta osabei laguntzea eta irribarretsu zegoen beti.

Egin beharrekoak eginda, etxetik hurbil zegoen ibaira joan eta orduak ematen zituen bazterrean. Batzuetan, oinak sartzen zituen uretan eta arraintxoak sentitzen zituen behatzetan kilimak egiten.

Beste batzuetan, kanaberaz ibaiaren hondoan harri politak bilatzen zituen. Ibaiertzean ahuspez etzan eta harri guztiak ukitzen zituen kanaberaz.

Behin batean, ibaiertzean zegoela, luzaroan egon zen igerian zebiltzan arrainei begira. Harrituta, gainerako guztiak baino handixeagoa zen arrain bat beti kontrako norabidean zihoala konturatu zen. Arraintxo honi, besteei baino gehixeago kostatzen zitzaion igeri egitea, ur-lasterrak beste aldera eraman nahi zuelako, baina biziki ahalegindu eta igerian jarraitzen zuen.

Maria -horrela deitzen zen neskatoa- poz-pozik zegoen arraintxoarekin; ur-lasterraren kontra joan arren, bazen bere atzetik joaten zen arrainen bat edo beste.

Arrainak aparteko argia eta indarra agertzen zituen, guztiak bere atzetik jarraitzera bultzatuz. Une horretan, bere semea ere horrelakoa izango zela sentitu zuen Mariak, ur-lasterraren kontra joan arren, besteak erakartzeko indarra izango zuela.

Maria askotan bueltatu zen ibaira; bere begirada arrain harengana zuzentzen zen beti eta irribarre egiten zion ertzetik.

Urteen buruan, Maria bere seme Jesusekin bide egiten ari zela, txikitan pentsatutako hura bete egin zela konturatu zen, eta, bere susmoak betez, Jesus arrain haren antzekoa zela, ur-lasterraren kontra joan arren, jende asko zihoala -eta doala- bere atzetik…

# Jarduera: “Hizki-zopa”

**Helburua:**
Sormena, arreta garatu eta Maria gehiago ezagutu.

**Lagungarriak:** hizki-zoparen orria, errotuladoreak edo arkatzak.

**Jardueraren garapena:**
Mariari buruzko ideiak batera jarri; Mariaz zer dakiten ikusi eta gauza batzuk idatziz jaso.

Ondoren hizki-zoparen kopia bana eman, Mariaren inguruko hitzak aurki ditzaten.

SCOUTS MSC

# María

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | J | E | S | U | S | I | Q | A | S | A | L | V | E |
| H | L | R | J | F | S | V | R | T | U | W | M | J | Y |
| E | Z | L | E | A | M | D | U | L | Z | U | R | A | I |
| V | E | Q | I | Z | V | N | V | K | F | V | F | R | B |
| O | T | X | N | M | A | R | I | A | M | U | N | D | O |
| E | C | F | D | L | D | I | O | S | N | H | U | O | Y |
| B | K | U | H | E | W | Z | M | A | D | R | E | Q | S |
| A | F | G | A | J | S | B | E | L | E | N | O | K | M |
| C | Q | Q | K | T | O | O | T | E | L | U | Z | S | T |
| E | O | X | T | W | I | Z | N | A | R | O | Y | U | H |
| V | J | N | K | H | S | H | X | N | H | H | J | M | E |
| M | F | Y | F | D | P | B | D | Z | T | I | X | L | U |
| V | I | R | G | E | N | K | I | J | X | V | D | S | P |
| M | E | S | P | E | R | A | N | Z | A | R | Z | Z | Z |

Las palabras están ocultas horizontalmente.

| | |
|---|---|
| belen | dios |
| dulzura | esperanza |
| jesus | luz |
| madre | maria |
| mundo | salve |
| virgen | |

# Otoitza.

Oi, Maria! Jainkoaren Ama eta gure ama,
erregutu munduko bakearen alde.

diskidetu liskarretan daudenak,
batik bat gerran daudenak.

Sufritzen daudenen atsekabe eta tristura
zure maitasunaren argitara eraman ditzagula.

Barkamen eta adiskidetzeak
gorroto eta mendekuaren lekua har dezatela.

Ama, bakearen Erregina, eraman gaitzazu
oreka eta adiskidetasunezko bideetara.

Zure bitartez, Jainkoaren bakea isuri dadila
lurraren gainera.

AMÉN.

*LA* **LUZ** *DE* *LA* **PAZ** *DE* **BELÉN**

# LA LUZ DE LA PAZ DE BELÉN

SCOUTS® MSC

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**9 - 11 URTE**

**LEHEN ASTEA. 2025eko AZAROAK 30**

## Ebanjelioa.

*Mateo 24, 37-44*

Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan.

Uholdearen aurretik, jan-edanean ziharduen eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte; eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eraman zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute; errotan ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute.

Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko.

Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.

*Autor: Guillermo Forrich*

*Traductor: Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: “Ulu handiaren gaua”.

Itzalberde basoaren bihotzean **Haizebeltz** izeneko otso-taldea bizi zen.

Azkarrak ziren, jakintsuak eta leialak beraien artean. Taldeburuak, Akai deitutako otso gris zaharrak, otsokumeek txikitatik ikasten zuten esaldia errepikatzen zuen:

"Taldearen sendotasuna, otsoa da, eta otsoaren sendotasuna, taldea."

Otsokume gazteenen artean, **Luma** begi distiratsuak zituen eta ipurtarina zen otseme gaztea zegoen. Argi eta sendoa bazen ere, dena bere kabuz egin zezakeela uste zuen batzuetan. Ausart izateko eta basoko arriskuei aurre egiteko ez zuela inoren beharrik erakutsi nahi izaten zuen.

Gau batean, Lumak ulu arraroa entzun zuen. Bitan pentsatu gabe, hotsaren jatorrirantz joan zen lasterka, ikerketa bere kontura egingo zuelakoan. Aurretik inoiz egon gabeko inguruan murgildu zen. Itzalak trinkoak ziren eta zuhaitzak oso garaiak eta isilak.

Eta, halako batean, ikusi zuen: hartz arre itzela, giza ehiztarien sarean harrapatuta.

Trabatuta zegoen, baina sekulako orroak jaurtitzen zituen. Beldurtu egin zen baina, aldi berean, pena sentitu zuen. Askatzen saiatu zen…adar bat zapaldu zuen artea… Otsoak burua jiratu eta are eta orro egin zuen are eta bortitzago.

Orduan, hanka-sartze nabarmena egin zuela konturatu zen Luma. Bakarrik zen eta ez zekien egoerari nola aurre egin. Atzera egiten saiatu zen, baina beldurraren beldurrez ezin zen mugitu.

Bat-batean, ulua entzun zen urrunera. Gero beste bat. Eta beste bat. **Taldea** zen. Bere arrastoaren atzetik joan ziren. Segundo batzuk nahikoak izan zituzten zuhaitzen artean agertu eta Luma beren gorputzekin babesteko.

"Ez zaude bakarrik, Luma” -esan zion Akaik-. “Batasunak indartsu egiten gaitu”.

Bat eginik, otsoek hartza entretenitu zuten Akaik bere letaginekin sarearen zati bat apurtzen zuen bitartean. Hartzak, aske sentitzean, ihes egin zuen basoan barrena, inori min eman gabe.

Gau horretan, ilargi betearen azpian, taldeak abesti zaharra kantatu zuen uluka, eta Lumak ere ulu egin zuen taldekideekin, azkenean Akaik esandakoa ulertuz.

Harrezkero, otsokume gazteak bakarka ibiltzeko tentazioa zutenean, Lumari gertatu zitzaiona eta Ulu handia gogoratzen zituzten:

***"Taldearen sendotasuna, otsoa da, eta otsoaren sendotasuna, taldea."***

Eta gau hartan guztiek ikasitakoa:

***" Batasunak indartsu egiten gaitu."***

# Jarduera: “Konfiantza”.

**Helburua:**
Taldekideen artean konfiantza sendotu.

**Lagungarriak:**
Ez dago aparteko lagungarririk.

**Jarduerararen garapena:**
Hasteko, eremu zabalean, bikoteka bana daitezela.

Bikotekideak, desberdinak izango dira, hau da, ez dituzte ezaugarri fisiko berak izango. Bikote bakoitza aurrez aurre jarriko da, oin-puntak ukituz. Eskuetatik helduta egongo dira.

Guztiak azaldu den bezala daudenean, moderatzaileak seinalea egin eta atzeraka tira egingo dute, beren buruari jausten utziz, baina bikotekideak babesturik. Hasiera baten, gerta liteke zalantzati agertzea, beldurrez, baina gero erlaxatuago egongo dira.

Une horretan, moderatzaileak zailtasunen bat gehi lezake: bira egiteko, kukubilkatzeko…, esan.

Adostutako denbora amaitu ondoren edo gehitutako erronkak burutu ondoren amai daiteke jarduera.

# Otoitza.

Zeruko Aita,
gida gaitzazu, Betleemeko izarrak Errege Magoak gure Salbatzailea jaio zen aska xumeraino gidatu zituen bezala, Kristoren argiak argiz bete ditzala gure etxeak, gure familiak sendotasunez bete ditzala eta herriak Jainkoaren maitasunean batu.

AMÉN.

*LA* **LUZ** *DE LA* **PAZ** *DE* **BELÉN**

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**9 - 11 URTE**

## Ebanjelioa

**LEHEN ASTEA. 2025eko AZAROAK 30**

*Mateo 3, 1-12*

Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan honela hots eginez: «Bihozberri zaitezte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza». Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak:

«Ahots bat oihuka ari da basamortuan: Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari».

Joanek gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari.

Jerusalem hiriko, Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen, eta, beren bekatuak aitortzen zituztela, Joanek bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

Fariseu eta saduzear askori, bataiatzera zetozela ikustean, honela esan zien Joanek: «Sugekumeok! Nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela? Ager ezazue zeuen jokabideaz bihozberrituak zaudetela.

eta ez pentsa nahikoa duzuenik: "Tenemos por padre a Abrahán""Abrahamen ondorengo gara" esatea. Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak. Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko: fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da. Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitezten; baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuago da, eta ni ez naiz inor hari oinetakoak eranzteko ere.

horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa: alea mandioan jasoko du; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko».

*Autor: Guillermo Forrich*

*Traductor: Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: "Mowgliren bihotza".

Indiar basoaren sakonean, zuhaitzek haizeari sekretuak xuxurlatzen dizkieten eta abereak basoko legearen arabera bizi diren lekuan, Mowgli -gizakumea- lasterka ari zen bere anai-arreba otsoekin.

Asko ikasi zuen taldeak onartu zuenetik: nola ehizatu, nola mugitu zaratarik egin gabe eta, garrantzitsuena, nola errespetatu basoko izaki guztiak.

Behin batean, Waingunga ibaiaren inguruan esploratzaile-lanetan zebilela, Mowglik garrasi ahula entzun zuen. Hotsari jarraituz, tximino txikia aurkitu zuen zauriturik lurrean. Bakarrik zegoen, dardarka, eta hankatxoetako bat handituta zuen.

Bagheera, pantera beltza, itzal artean agertu zen.

—Bandar-log bat da —esan zuen kopetilun—

Tximino horiek ez dute legea betetzen, arazoak baizik ez dakartzate. Utz ezazu, Mwgli.

Mowglik begi errukitsuz begiratu zion tximino txikiari.

—Baina, zaurituta dago, Bagheera. Bost axola Bandar-log den ala ez. Laguntzeko moduan egonez gero, lagundu egin behar dut.

Bagheerak ufa leuna jaurti eta ez zuen besterik esan.

Kontu handiz, Mowglik tximinoa besoetan hartu eta bisitari txikiaren hanka sendatzen lagundu zion Raksha otsemearen haitzulora eraman zuen.

Hurrengo egunetan, Mowglik **Choti** izena jarri zion tximinoa zaindu egin zuen. Tximinoak, apurka-apurka, konfiantza hartu eta gizakumeari beldur izateari utzi zion. Gainerako abereek mesfidati begiratzen bazioten ere, Mowglik ez zuen inoiz amore eman.

Asteen buruan, egundoko ekaitzak astindu zuen basoa. Euri-jasen eraginez, ibaiak gainezka egin zuen eta abere asko eta askok arineketan jo zuen leku garaietara. Kaosaren erdian, Mowgli ur-laster handiak harrapatu eta urrun eraman zuen.

Orduan, itzalak jauzi egin zuen zuhaitzen artean. Choti zen.

—Heldu honi! —egin zuen garrasi tximinoak adar luzea eskainiz.

Chotiri eta honekin bat egin zuen beste tximino askori esker, Mowgli bizirik atera zen.

Gau horretan, haitzuloan sua dantzan ari zela eta ura bere bidera bihurtuta, Bagheerak ahapeka hitz egin zuen:

—Gauza garrantzitsua gogoratu dut gaur, gizakume. Bihotz zintzoa izateak Bandar-logik bihurriena ere alda dezakeela.

Mowglik irribarre egin eta suaren ondoan uzkurtuta lotan zen Chotiri begiratu zion.

—Basoak gauza asko irakatsi zidan —esan zuen Mowglik—, baina bihotza…, hori ama Rakshak eta taldeak irakatsi zidaten.

Harrezkero, guztiek gogoratu dute basoan honako hau: indarra eta legea garrantzitsuak badira ere, bihotz zintzo eta ausartak desberdinenak ere elkar ditzakeela.

# Jarduera: "Zirraren zuhaitza".

**Helburua:**
Beren zirrarak era seguruan aitortu, agertu eta batera jarri, hitzez, koloreez eta ikurrez baliatuz.

**Lagungarriak:**
- Kartulina handia edo arbel zuria (zuhaitza marrazteko)
- Koloretako markatzaile edo errotuladoreak
- Koloretako post-itak edo kartulina txikiak (4-5 partaide bakoitzeko)
- Zinta itsasgarria edo masking zinta
- Musika gozoa (nahi izanez gero, giro lasaia sortzeko)
- Erreferentziazko zirrara-aurpegitxoen fitxak (nahi izanez gero)

**Jardueraren garapena:**
*PAldez aurreko prestaketa: Marraztu kartulina edo arbelean hostorik gabeko zuhaitz handia (bakarrik enborra eta adarrak marraz ditzakezu)*

**1. Sarrera (5 minutu)**
- Azaldu, labur-labur, zer diren zirrarak eta guztiak garrantzitsu direla: poza, beldurra, tristura, haserrea, harridura, patxada, e.a.
- Elkarrekin "Zirraren zuhaitza" eratuko dutela adierazi; hosto bakoitzak taldekide baten zirrara irudikatuko du

**2. Banakako adierazpena (10 minutu)**
- Partaide bakoitzari 4 edo 5 post-it edo kartulina txiki eman
- Aste honetan izandako zirraren bat, positiboa nahiz negatiboa, gogora dezatela
- Hauxe egingo dute hosto bakoitzean:
  - o **Zirrara** idatzi (adb., "tristura")
  - o Ikurra marraztu edo zirrara hori irudikatuko duen kolorea erabili
  - o (Nahi izanez gero) Esaldi laburra idatzi beren sentimendu hori azaltzeko. Nahi izanez gero, batera jarri

**3. Hostoak zuhaitzean ipini (10 minutu)**
- Banan-banan edo talde txikietan deitu eta hostoak itsas ditzatela zuhaitzean
- Egin ahala, idatzitako zirrara boz goraz irakur dezakete (eroso badaude)
- Idatzitakoa irakurri nahi ez badute, isilik itsas dezatela hostoa

**4. Gogoeta eta amaiera (5 minutu)**
- Zirraraz beteriko zuhaitzari begira diezaiotela. Galdetu:
  - o Zein zirrara errepikatu da gehien?
  - o Zein zirrara da berri zuretzat?
  - o Nola lagun diezaiokegu triste edo haserre dagoenari?
- **Gure sentipenez hitz egitea, egokia dela eta zirrara guztiak garrantzitsuak direla** nabarmendu.

# Otoitza.

Jesus Jauna,
lagundu Otsokume ona izaten;
adi egoten besteei laguntzeko;
beti egia esaten eta nire agintza betetzen;
ausart izaten zerbaitek beldurtzen nauenean;
daukadana pozik banatzen;
izadia eta izaki bizidun guztiak zaintzen.
Erakutsi bihotz ona izaten,
egunez egun zerbitzatzeko, maitatzeko eta hazteko.
**Hala izan bedi!**

*LA* **LUZ** *DE* *LA* **PAZ** *DE* **BELÉN**

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**9 - 11 URTE**

**LEHEN ASTEA. 2025eko AZAROAK 30**

## Ebanjelioa.

*Mateo 11, 2-11*

Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen kartzelan, eta bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzera: «Zu al zara «Etortzekoa, ala besteren baten zain egon behar dugu?».

Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuena: itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie.

Eta zoriontsua sinesteko oztoporik niregan aurkitzen ez duena!». Haiek alde egitean, Jesus Joani buruz hitz egiten hasi zitzaion jendeari: «Zer ikustera irten zineten basamortura? Haizeak kulunka darabilen kanabera?

Zer ikustera irten zineten, bada? Profetaren bat? Bai, noski, eta profeta baino ere handiagoa. Hartaz dago idatzia Liburu Santuan: Begira , neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik; hark prestatuko dizu aurretik bidea.

Benetan diotsuet: Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik; hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena ere hura baino handiagoa da».

*Autor: Guillermo Forrich*

*Traductor: Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: "Basoa zeharkatu zuen sugarra"

Behin batean, neguak luze eta hotzak ziren baso zarbatsuan, Lumi izeneko ipurtargi txikia bizi zen. **Lumi** ez zen ipurtargirik bizkorrena edo distiratsuena, baina bazuen zerbait berezia: bere argia ez zen itzaltzen ez haizeaz, ez euriaz ezta iluntasunik sakonenaz ere.

Abenduko goiz batean, uso zuria iritsi zen basora berri garrantzitsuarekin. Urrunetik, Betleem deitutako parajetik etorri zen hegan, eta bakezko mezua zekarren basoko abere guztientzat.

—Belengo Bakearen Argia dakart -esan zuen usoak-. Bakea gurekin, ontasun eta itxaropenez beteriko keinu txikiekin, hasten dela gogoratzeko, munduan barrena bidaia egin duen sugarra.

Abereak liluraturik geratu ziren. Azeriak alde batera utzi zituen bere maltzurkeriak, hartzak beren neguko siesta eten egin zuen eta lasterka egiteari inoiz uzten ez dion erbia ere geldutu egin zen entzuteko.

aina arazo bat zegoen. Usoak bidean aurrera egin behar zuen eta ezinbesteko zen zaindaria, argia basoko txoko guztietara eraman zezan. Ez zen inor ausartzen. Haizea sendoa zen, bidea, luzea eta sugarra, makala.

Lumik, orduan, urrats bat aurrera egin zuen.

—Neuk eraman dezaket argia -ahots leunaz-. Nire argia txikia da, baina iraunkorra. Ez dut haizetik babestu beharrik, ekaitzean ere distira egiteko jaio nintzen-eta.

LAbereek zalantza agertu zuten. Ipurtargiak? Hain abere txikiak?

Baina usoak irribarre egin zuen.
—Batzuetan, txikienek beren gain hartzen dituzte misiorik handienak.

Horrela hasi zen Lumiren bidaia. Hegan egin zuen elurtutako zuhaitzen gainetik, izoztutako errekak eta haitzulo ilunak zeharkatu zituen. Leku bakoitzean, argi apur bat uzten zuen, bihotzak eta irribarreak biztuz.

Kastoreak bere egurra banatu zien hotz zirenei. Hontzak izarrak irakurtzen irakatsi zien gazteenei.

Beti bakarrik bizi izan zen otsoak ere, bere haitzulora gonbidatu zituen gainerako guztiak.

Lumi basoaren erdigunera itzuli zenean, bere argia ez zen berarena bakarrik; guztien argia zen, bakezko ekitaldien bidez txoko bakoitzean piztutako argia.

Harrezkero, urtero, basoko abereak **Belengo Bakearen Argia**, indarrez eta ziztu bizian ez ezik, itxaropenez eta bihotz ausartaz eraman zuen ipurtargi txikia gogoratzeko bildu ohi dira.

# Jarduera: “Faroltxoa”.

**Helburua:**
**Belengo Bakearen Argiaren** esanahia ulertu, Jesusen argia mundura eraman zuen Mariak bezala, **bakea** beren familia, talde eta elkarteetara **eramateko konpromisoa** har dezaten.

**Lagungarriak:**
• Plastikozko edalontzi gardenak edo birziklatutako botilatxoak (partaide bakotxarentzat bat)
• Zeta-papera edo koloretako zelofana (horia, gorria, laranja)
•Itsasgarria barran edo kola zuria
•Guraizeak
•Markatzaileak
•LED kandelatxoak (seguruagoak direlako)
•Kartulina-zerrendatxoak heldulekuak egiteko (nahi izanez gero)
•Etiketak esaldi honekin:
“Jesus Mariaren bitartez dator mundura. Nik bere bakezko argia daramat”.

(inprimatuta edo eskuz idatzita)

**Jardueraren garapena:**

**1. Hasiera (10 minutu)**

• Zirkuluan, Belengo Bakearen Argiaren jatorri eta sena azaldu.

• Mariarekin lotu:

“Mariak bere sabelean Jesusen argia mundura eraman zuen bezala, geuk ere argi hori daramagu maitasun eta bakez banatzeko.”

**2. Eskuzko jarduera: Bakearen faroltxoa egin (30 minutu)**

**Urratsez urrats:**
1. Partaide bakoitzari botilatxoa edo plastikozko edalontzia eman.

2. Kanpoaldean, zeta-paperezko/zelofanezko zerrendatxoak itsatsi itsasgarriaz, kolore beroen mosaikoa osatuz (argia irudikatuz).

3. Bake-ikurrez apaindu: bihotzak, gurutzeak, usoak, izarrak.

4. Esaldia jasotzen duen etiketa itsatsi edo markatzaileaz idatzi.

5. LED kandela ipini barruan.

6. (Nahi izanez gero) Kartulinazko edo artilezko heldulekua gehitu zintzilikatu ahal izateko.

**3. Bake-konpromisoa (10 minutu)**

• Faroltxoak biztu, argiak itzali eta ekitaldi laburra egin:

o Partaide bakoitzak honelako zerbait esango du ahopeka edo taldean:
“Argi hau maitasun eta bakez daramat etxera, Mariak egin zuen bezala.”

o Bakeari buruzko abesti gozoa abestu edo otoitz egin.

# Otoitza.

"Jesus, Zeu zara mundura etorritako argia.

Eskerrik asko, Mariaren bitartez, guregana etortzeagatik.

Lagun iezadazu zure bakea nire ingurukoengana eramaten.

Argi honek argi egin dezala nire bihotzean ere.

AMÉN".

LA LUZ DE LA PAZ DE BELÉN

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**9 - 11 URTE**

**LEHEN ASTEA. 2025eko AZAROAK 30**

## Ebanjelioa

*Mateo 1, 18-24*

Jesus Mesiasen sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen; eta, elkarrekin bizitzen hasi aurretik, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez.

Jose, Mariaren senarra, gizon zuzena zen; ez zuen hura salatu nahi, eta isilean uztea erabaki zuen. Asmo horrekin zebilela, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengoa, ez izan beldurrik Maria zeure emaztetzat hartzeko, harengan sortua Espiritu Santuarengandik baitator.

Semea izango du, eta zuk Jesus ezarriko diozu izena, berak askatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia, Jaunak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen: «Hara, birjinak haurdun gertatu eta semea izango du, eta Emmanuel jarriko dio izena (Emmanuel izenak «Jainkoa gurekin» esan nahi du)».

Esnatzean, Jaunaren aingeruak agindua egin zuen Josek, eta Maria emaztetzat hartu zuen.

*Autor: Guillermo Forrich*

*Traductor: Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: "Askaren misterioa".

Abereak patxadaz bizi ziren Betleemeko haitzulo txiki batean. Idi handi eta lasaiak antzinako istorioak kontatzea zuen gustuko; Zuri ardia kuxkuxero eta jostalaria zen eta Gris astoa, nahiz eta egoskor samarra izan, oso langilea zen.

Gau hotz batean, harrien artean haizea zebilela, distira bitxiak argitu zuen zerua.

—Zer da argi hori? —galdetu zuen Zurik, idiaren atzean ezkutaturik.

—Ez dakit —erantzun zuen Grisek—, baina gertaera garrantzitsuren bat izango dela ematen du.

Bat-batean, begitarte otzana zuen emakumea eta begirada onberadun gizona sartu ziren haitzuloan. Emakumea erditzeko puntuan zen.

—Maria du izena —xuxurlatu zuen idiak, betidanik jakin izango balu bezala—, eta jaioko den umetxo hori… berezia da.

Abereak isilik geratu ziren. Une horrek mundua aldatu egingo zuela sumatu zuten beren bihotzean.

Ordu batzuen buruan, urteko gaurik isilenean, haur jaioberriaren negarra entzun zen haitzuloan.

—Jaio da! —oihukatu zuen Zurik, pozaren pozez saltok

—Eta hementxe jaio da, gure artean, ez jauregian edo hiri handian -erantsi zuen Grisek harriturik.

Mariak oihalez batu zuen txikia eta lastoaren gainean etzan. Haurra irribarretsu zegoen, aurrean zituenak ezagutuko balitu bezala.

—Bera Jesus da —esan zuen idiak—. Jainkoaren Semea; eta Mariaren "baietzari" esker etorri da mundura.

Abereek, egia esan, ez zuten ondo ulertzen kontu hura: nola has zitekeen sekulako kontu hori leku hain txikian… Baina bazekiten haurtxoak argia, bakea eta maitasuna zekarrena. Eta Maria, bere fede eta bihotz zabalaz, zeruaren eta lurraren arteko zubi izan zena.

Harrezkero, Eguberriz Eguberri, hauxe gogoratzen dute askako abereek: mirariak isiltasunean sor daitezkeela eta Maria bezalako amaren maitasunak itxaropenik handiena ekar diezaiokeela munduari.

# Jarduera: “Collage”.

**Helburua:**
Mariak Jesusen Ama bezala duen egitekoa eta Jesus mundura etortzean duen garrantzia ulertu sormena landuz.

**Lagungarriak:**
• Aldizkari zaharrak.
• Guraizeak (partaide edo bikote bakotxak bat)
• Itsasgarria
• Orri zuriak edo karta-neurriko kartulinak (partaide bakotxarentzat bat).
• Koloretako arkatzak edo markatzaileak.
• (Nahi izanez gero) Mariaren irudi txiki bat eta Jesusena beste bat partaide bakoitzarentzat (aurretik inprimatuta egon daiteke).

**Jardueraren garapena:**

**1. Sarrera eta hasierako zirkulua (10 minutu)**

•Arduradunak partaideak bildu eta zirkuluan jarraraziko ditu.

• “Jesus Mariaren bitartez dator mundura” esaldia azalduko du labur-labur, hitz errazak erabiliz.

“Jainkoak Maria, emakume on eta ausarta, aukeratu zuen Jesus mundura ekartzeko. Mariak baietz esan zuen eta Jesusen amatxo bihurtu zen. Berari esker, Jesus mundura etorri zen guri Jainkoaren maitasuna agertzera.”

•Galdera laburrak egin gogoeta eragiteko:

o Nor izan zen Maria?
o Nola sentitu ote zen Jesus izango zuela jakitean?
o Zein gauza on ikasi zuen Jesusek bere amarengandik?

**2. Sormenezko jarduera: "Mariaren baietzaren collagea" (35 minutu)**

*Argibideak:*
• Orri edo kartulina bana emango diegu partaideei.

• Erdian hauxe idatziko (edo kopiatuko) dute: “Jesus Mariaren bitartez dator mundura”

• Gero, aldizkariez baliatuz, ondorengo hauek irudikatuko dituzten irudiak aurkitu eta moztuko dituzte:

o Amaren maitasuna
o Familia
o Jaiotza
o Bakea, itxaropena edo ontasuna

• Maria eta bere egitekoa gogoraraziko dizkiena marraztu edo idatz dezakete palabras que les recuerden a María y su papel.

• Mariaren irudia, eta Jesusena, itsas dezakete erdian, eskura izanez gero.

**Collagearen helburua:**
Mariaren maitasunak Jesus mundura ekarri zuela eta, Mariaren antzera, geuk ere gauza onak egiteari “baietz” esan diezaiokegula irudikatu.

**3. Amaitu eta batera jarri (10 minutu)**

• Nahi duenak bere collagea batera jar dezala, zein irudi eta zergatik aukeratu zuen azalduz.

• Amaitzeko, otoitz egin Mariari esker ona adieraziz “bai” esan eta Jesus mundura ekarri zuelako.

SCOUTS
Mundu hobea eraiki
MSC

# Otoitza.

Maria, eskerrik asko Jainkoari baietz esateagatik.

Harengan uste osoa jarri zenuelako etorri zen Jesus mundura.

Lagun iezadazu neuk ere “bai” esan
eta noan lekura maitasuna eraman dezadan.

AMÉN.

*LA* **LUZ** *DE* *LA* **PAZ** *DE* **BELÉN**

SCOUTS MSC

# LA LUZ DE LA PAZ DE BELÉN

SCOUTS® MSC

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**12-14 URTE**

**LEHEN ASTEA. 2025eko AZAROAK 30**

## Ebanjelioa.

*Mateo 24, 37-44*

Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan.

Uholdearen aurretik, jan-edanean ziharduen eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte; eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eraman zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute; errotan ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute.

Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko.

Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.

*Autor: Ana Vieites*

*Traductor: Miren Leaniizbarrutia*

# Ipuina: “Almendrondoa”.

**ALMENDRONDOA** (Cuentos de la Virgen, Jaime de Peñaranda Algar S.J.):

Nazaretera jaisten diren mendixka harritsuetan, eskeleto okerdun almendrondoak lurrera itsatsita daude. Amaitzear den neguko eguzkia hasi da arratsaldeak zerbait berotzen.

Mariak airearen epeltasuna aprobetxatzen dihardu txikiarekin paseoan.

—Ama, hasi dira loreak irteten.
—Ez dakizu almendrondoaren istorioa?

“Negu oso hotza izan zen behin. Goizero, izotz zuriak soroak estaltzen zituen eta landareek ezin zuten hazi. Hainbat belarrek gainerako landareek baino bizkorrago atera zuten burua lur azpitik eta hori eta maskal geratu ziren betirako.

Lurrazpian, sustraiz sustrai, landare eta zuhaitzak eztabaidan aritu ziren loreak botatzera ausartu behar zuenaren inguruan

Zuhaitz zaharrak oso zuhurrak ziren eta, asko ekoizten zutenez, ematen zuten uzta ezin zutela arriskatu zioten.

Lirioek, harro samarrak izanik, beste lore batzuk aurretik atera zitezela nahi zuten, beraiek ederragoak zirela agertzeko. Ibaiko heriotzorriek uraren eskasia jarri zuten aitzakiatzat. Orduan, almendrondoak hitz egin zuen:

—Nik ur gutxi behar dut, bihurrituta nago, nire azala latza da eta ez daukat harrotzeko motiborik; gainera, almendrak ez dira ezinbesteko negua igarotzeko…, beraz, neu aterako nahiz hotzera!

Lore zuri-zuriak atera zitzaizkion, elur-maluten itxurakoak. Eta udaberriaren mandatari izan ziren. Eta erle langileak esnatu zituzten. Eta lorezti-usainez bete zuten bailara osoa. Eta lepo estuko pitxerrak beren adar loretsuez bete ziren eguneroko mahaia apaintzeko.

—…Eta zu bezalako haurrek arratsaldez landan jolastera ateratzea eskatu zioten amari.

—Horregatik esaten didazu “goiz jaikitzen denari Jaunak laguntzen dio” esaldia behin eta berriz?

—Bai, seme, eta Jainkoak hotzetara atera eta lokartutako bihotzak batzen lehena izateko adorea ematen diolako.

# Jarduera: "Zitori horiaren zuhaitza".

**Helburua:**
Elkartea lagun bakoitzaren ekarpenari esker eraikitzen dela aitortu, baina taldean bizi izanik, Abendualdia banakako itxarote bezala bizitzeaz batera, talde-bizipena dela ahaztu gabe.

**Lagungarriak:**
- Kartulina handia edo paper jarraitua
- Hostorik gabeko zuhaitzaren silueta (ahal izanez gero, almendrondoa)
- Zitori horiaren marrazkia (partaide bakoitzeko bat)
- Errotuladore edo arkatzak
- Zinta itsasgarria edo itsasgarria

**Jardueraren garapena:**
Giro lasaia sortuko dugu ebanjelioa eta almendrondoaren kontaketa irakurtzeko. Ipuina irakurtzean, zuhaitzaren ekintza bere eta izadi osoaren onerako dela nabarmendu. Ondoren, gogoeta eragin dezakegu ondorengo galderekin:

- Zer egin zuen almendrondoak ingurunearen alde?
- Noren mesederako izan zen bere keinua?
- Ezagutzen duzu antzeko zerbait egin duen taldekiderik?
- Zer egin dezake gutariko bakoitzak taldea batuago egon dadin?
- Zer gertatuko litzateke guztiok bestearen lehen urratsaren zain geratuko bagina?

Abendualdiko aste honetan, batasunaren eta elkartearen gaia lantzen dihardugu. Horregatik, geure almendrondoa sortuko dugu, neguan, beste inor ausartzen ez denean, loratu egiten den zuhaitza.

Horixe izango da gure izar gidaria, geure egin nahi dugun bizimoduaren ikurra, Abendualdian.

Eta jarriko ditugun loreak ez dira edozein lore, eskaut ikur den zitori horia baizik. Lore bakoitzak gure konpromisoa agertuko du eta guztiok gure aldetik dena ematen dugunean taldea loratu egiten dela agertuko.

Lorearen kopia bana izango dugu; alboko lore-hosto batean, taldearen zerbitzura jarriko dugun talentua idatziko dugu eta bestean, aste honetan batasuna sustatzeko konpromiso zehatza. Erdian, bi lore-hostoak lotzen dituen osagaiak gure elkartea irudikatuko du; bakoitzak bere erara apain dezake, bere burua irudika dezan.

Azkenik, loreak zuhaitzean itsatsiko ditugu. Bakoitzak berari dagokiona egiten duenean zer gertatzen den hausnar dezakegu.



# Otoitza.

OTOITZA AITARI ELKARTEAREN ALDE

Aita, elkarteko anai-arreben alde eskatu nahi dizut gaur.

Banan-banan ezagutzen dituzu, beren izen eta abizenez, beren dohain eta akatsak, poz eta atsekabeak, sendotasun eta makaltasunak ezagutzen dituzu, hau da, beren historia osoa; diren bezala onartzen dituzu eta zure Espirituarekin suspertzen.

Zuk, Jauna, maite dituzu, ez onak direlako, zeure seme eta alaba direlako baizik.

Irakatsi beraiek benetan, zure Seme Jesusek bezala, maitatzen; ez beren hitz edo egiteengatik, direnagatik baizik, zure maitasun mugagabea antzemanez haietako bakoitzean eta, batez ere, ahulenengan.

Eskerrik asko, Aita, anai-arrebak eman dizkidazulako. Opari dira guztiak niretzat, benetako sakramentu, zure Semearen agerpenaren zeinu nabarmen eta eraginkor. Eman Jesusen begirada haiek begiesteko, eta eman bere bihotza haiez azken muturreraino maitatzeko, neuk ete Jesusen agerpenaren sakramentu bizi izan nahi dut-eta haietako bakoitzarentzat.

AMÉN.

*LA*
**LUZ**
*DE*
*LA*
**PAZ**
*DE*
**BELÉN**

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**12-14 URTE**

## Ebanjelioa.

**BIGARREN ASTEA. 2025eko ABENDUAK 7**

*Mateo 3, 1-12*

Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan honela hots eginez: «Bihozberri zaitezte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza». Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak:

“Ahots bat oihuka ari da basamortuan: Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari”.

Joanek gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari. Jerusalem hiriko, Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen, eta, beren bekatuak aitortzen zituztela, Joanek bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

Fariseu eta saduzear askori, bataiatzera zetozela ikustean, honela esan zien Joanek: «Sugekumeok! Nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela? Ager ezazue zeuen jokabideaz bihozberrituak zaudetela, eta ez pentsa nahikoa duzuenik “Abrahamen ondorengo gara” esatea.

Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak. Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko: fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da.

Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitezten; baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuago da, eta ni ez naiz inor hari oinetakoak eranzteko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa: alea mandioan jasoko du; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko».

*Autor: Ana Vieites*

*Traductor: Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina: “Kristalezko kanpaia”.

Negua zen. Elurrak estali egin zuen herria. Agurea eta haurra oinez zihoazen ermitarantz. Bat-batean, haurra makurtu egin zen eta zerbait hartu zuen lurretik.

—Begira, aitona. Kanpai txiki bat; kristalezkoa dirudi.

—Bai —esan zion aitonak irribarretsu—, kanpai oso berezia da. Soinu egiten du, baina norbaitek zerbait musu-truk egiten duenean bakarrik.

—Benetan?

—Bai, aspaldi apurtu zen, baina zerbait bihotzez eginez gero, bere musika entzuten da.

Haurrak berokiaren poltsikoan gorde zuen kanpaia. Egunean zehar, haren soinua entzun nahirik ibili zen, horretarako hainbat gauza eginez: mahaia jasotzen lagundu, logela txukundu edo adiskideari bufanda utzi. Baina ezerez.

—Aitona, uste dut benetan apurtuta dagoela.

—Soinua entzuteko asmoarekin egin zenuen?

—Bueno... bai. Entzutea nahi nuen.

—Orduan ez du soinurik egingo.

Egunak joan, egunak etorri, arratsalde batean, lepoan egurra zeraman edadeko emakume bat ikusi zuen mutikoak. Ez zion inork laguntzen. Bitan pentsatu gabe, emakumearengana hurbildu eta etxeraino lagundu zion.

Irtetzean, eskua berokiaren poltsikoan sartzean, zerbaitek dar-dar egiten zuela antzeman zuen. Kanpaia zen. Nota luze eta argia hedatu zen aire hotzean.

—Soinu egin du! —oihukatu zuen haurrak zoriontsu.

—Soinu egin du —errepikatu zuen aitonak—, oraingoan zure bihotzak ez baitu zeure buruarengan pentsatu.

# Jarduera: “Harria”.

**Helburua:**
Gure bihotza gogortzen duten jarreren inguruan gogoeta egin, aldatzeko nahia agertu eta bihotzaren “soinua” entzunarazten diguten ontasunezko keinu zintzoak aitortu.

Bihotz sano, garbi eta eskuzabala lantzek jarrera zehatzarekin konpromisoa sustatu.

**Lagungarriak:**
- Harri txikiak (partaide bakoitzarentzat bat)
- Errotuladore iraunkorrak
- Palankana edo ontzi handia urarekin
- Musika gozoa edo kanpaiaren soinua (nahi dena)

**Jardueraren garapena:**
Hasteko, aste honetako ebanjelioa irakurriko dugu; ostean, Kristalezko kanpaia ipuina irakurriko da, giroa eta tonua zainduz.

Isilik, gure bihotza gogortzen duenaren edo soinu eginarazten dionaren inguruan gogoeta egin.

A continuación, cada participante recibe una piedra y un rotulador.

Ondoren, harri eta errotuladore bana emango diegu partaideei. Isilik, bihotza gogortzen duen jarrera pertsonala idatziko dute harrian (esate baterako: norberekeria, eroapenik eza, inbidia, lotsa, axolagabetasuna…).

Txandaka, ura dagoen lekura hurbildu eta, isilik, uretara jaurtiko dute harria, barruko garbitasunaren keinu sinboliko bezala.

Lekura bueltatzean, lagun bakoitzak soinu bat egingo du bere gorputzarekin (txaloa, karraska, oinkada, zaplada…). Jeinu hori izango da “kanpai pertsonalaren soinua”. Keinu hori izango da bere “kanpai pertsonalaren soinua”.

Egitean, aste horretan jarrera positiboren bat bizitzeko konpromisoa hartuko du bere barruan. Taldeak soinua errepikatu egingo du eta ondoren beste batek jaurtiko du harria, bere soinua egin eta taldeak errepikatu, denen artean “bihotz garbiaren soinu-banda” osatu arte.

Amaitzeko, denen batera beste behin errepikatuko dute soinu-banda osoa, ozen eta pozik, esanez: “Bihotz garbiarekin, soinu egiten duten kanpai gara”.

SCOUTS Mundu hobea eraiki | MSC

# Otoitza

## EMADAZU BIHOTZ BERRIA

Jesus Jauna, bihotzari begiratzen dakizuna,
lagun iezadazu nirera begiratzen, itxuran ez
geratzen, aldatu beharra dudala aitortzen.

Emadazu bihotz berria, nire interesetatik harago
maitatzen dakiena,
barkatzeko, entzuteko, fidatzeko gauza dena,
bihotz garbia zuretzat, besteentzat et baita
neuretzat ere.

Irakats iezadazu bidea prestatzen,
barrutik hasita.

Zure etorreran erne egon nadin,
eta nire bizitzak fruitu onak eman ditzan.

AMÉN.

LA LUZ DE LA PAZ DE BELÉN

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**12-14 URTE**

**HIRUGARREN ASTEA. 2025eko ABENDUAK 14**

## Ebanjelioa.

*Mateo 11, 2-11*

Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen kartzelan, eta bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzera: «Zu al zara «Etortzekoa, ala besteren baten zain egon behar dugu?».

Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuena: itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie.

Eta zoriontsua sinesteko oztoporik niregan aurkitzen ez duena!». Haiek alde egitean, Jesus Joani buruz hitz egiten hasi zitzaion jendeari: «Zer ikustera irten zineten basamortura? Haizeak kulunka darabilen kanabera? Zer ikustera irten zineten bestela? Soineko apainez jantzitako gizona? Jantzi apainekoak errege-jauregietan bizi ohi dira.

Zer ikustera irten zineten, bada? Profetaren bat? Bai, noski, eta profeta baino ere handiagoa. Hartaz dago idatzia Liburu Santuan: Begira , neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik; hark prestatuko dizu aurretik bidea. Benetan diotsuet:

Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik; hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena ere hura baino handiagoa da».

*Autor: Ana Vieites*

# Ipuina:
# “Farola”.

Farola ipini zuten jende askorik ez zebilen bidean, landa eta zuhaitzen artean. Hasieran, garrantzitsu sentitu zen, handik igarotzen ziren bakarrentzat ezinbesteko zela pentsatuta. Baina, denboraren buruan, begiratu ere ez zion egiten inork.

Baziren esku-argiaz baliatzen zirenak, edo auto-argiekin konpontzen zirenak. Ez zuela ezertarako balio pentsatzen hasi zen.

“Alferrik nago hemen”, pentsatu zuen, “hemen ez nau inork behar”.

Egun batean, ekaitzak argirik gabe utzi zuen herria eta eguzki-energiaz elikatutako farola honek ematen zuen argia baizik ez zegoen piztuta. Ibiltari bat agertu zen blai eginda aterpe bila, eta argia ikustean, hara jo zuen.

—Eskerrik asko —esan zion iristean—. Zuregatik izan ez balitz ezin izango nukeen biderik aurkitu.

Farolak ez zuen ezer esan, baina inoiz baino indartsuago distiratu zuen barrutik. Ordutik aurrera sekula ez zion bere buruari galdetu bere argia baliagarri zen ala ez.

Izan ere, **nahiz eta denek ez ikusi, bere argiak bideak aldatu** egiten zituela ulertu zuelako.

# Jarduera: “Kandela-babeslea”.

**Helburua:**
Nahiz eta batzuetan ez ikusi, gure ekintzek besteen bizitzak argitzen dituztela aitortu.

Argi eta itxaropena zabaltzen duen kate-maila sentitu, argi hori familiara eta ingurura eramateko konpromisoa harturik.

**Lagungarriak:**
-Kandela-babesleen siluetak inprimatuta (partaide bakoitzeko bat)
- Errotuladoreak, arkatzak, pegatinak
- Funtsezko hitzak (nahi izanez gero)
- Zinta edo itsasgarria babeslea eratzeko

**Jardueraren garapena:**
Mateo 11, 2-11 txatala eta “Farola” ipuina irakurriko ditugu, askotan jabetzen ez bagara ere, argi egiteak duen balioaren inguruan gogoeta egin.

Ondoren, urtero Betleemen, Jesusen jaiotza gertatu zan haitzuloan piztu eta mundu osoan bake, batasun eta itxaropenaren ikur bezala zabaltzen den Belengo Bakearen Argiaren esanahia gogoratuko dugu.

Aurten, Vienara joan eta argia ekartzeko ardura asturiarrena izan dela eta hemengo eskautak Asturiasera joan eta guri ekarri digutela kontatuko diegu.

Gure taldeak ere bat egiten du kate horrekin, argia jaso goazen leku guztietara argi hori eramateko konpromisoa hartu eta itxaropenaren mandatari bihurtuz, gure aurretik eskautek egin zuten bezala.

Partaide bakoitzak paperezko kandela-babeslea jasoko du (hurrengo orrian; orrialde bakoitzeko bi inprima daitezke); kanpoko zirkulutik eta lerro etenetik moztu ondoren, bakoitzak bere ingurura eraman nahi duen argia irudikatuko duten hitzez, marrazkiez edo konpromisoez apainduko dute.

Ondoren, zirkulua apur bat tolestu, konoa egiteko, eta muturrak itsatsi.

Babeslea egin ondoren, gorde, gure hirian Belengo Argia jasotzeko egingo den ekitaldian erabiliko da-eta. Babesleak ipuineko farola gogoraraziko digu, argia gure ingurura eraman eta, nahiz eta denek ez ikusi, gure argiak bideak aldatzen dituela konturatzean.



# Otoitza.

ZURE MANDATARI IZATEKO

Argitu nire itzala zure argia eramateko.

Argitu nire irribarrea zure berpizkundeak besarkatzeko.

Argitu nire ezintasuna zure maitasunean sendotzeko.

Argitu nire ibilia ematean hazteko.

Argitu nire hitzak zure isiltasunei beldurrik ez izateko.

Argitu nire malkoak ereiten jarraitzeko.

Argitu nire hutsegiteak zuregandik ikasteko.

Argitu nire otoitza zure deiari entzungor ez egiteko.

Argitu nire taupada Erreinuaren erritmoa ez galtzeko.

Argitu nire premiak neure burua hauetatik harago bizitzera bultzatzeko.

Argitu nire maitasuna mugagabea eta azken muturrerainokoa izan dadin, zurea bezala.

Argitu nire ametsa zurekin esnatzeko.

Argitu nire musika besteekin abesteko.

Argitu nire zauriak iturburutik ureztatzeko.

Argitu nire karisma bizi-osotasun izateko.

Argitu nire gertutasuna aldi berean tarteak eta zubiak eraikitzeko.

Argitu nire Eukaristia zeure oroimenez egiteko.

Argitu nire bakea zure mandatari izateko.

*(Marcos Alemán)*

LA LUZ DE LA PAZ DE BELÉN

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA ARGITUZ.

**12-14 URTE**

**LAUGARREN ASTEA. 2025eko ABENDUAK 21**

## Ebanjelioa.

*Mateo 1, 18-24*

Jesus Mesiasen sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen; eta, elkarrekin bizitzen hasi aurretik, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez.

Jose, Mariaren senarra, gizon zuzena zen; ez zuen hura salatu nahi, eta isilean uztea erabaki zuen. Asmo horrekin zebilela, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengoa, ez izan beldurrik Maria zeure emaztetzat hartzeko, harengan sortua Espiritu Santuarengandik baitator.

Semea izango du, eta zuk Jesus  ezarriko diozu izena, berak askatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia, Jaunak profetaren bidez esana bete  zedin gertatu zen: «Hara, birjinak haurdun gertatu eta semea izango du, eta Emmanuel jarriko dio izena (Emmanuel izenak «Jainkoa gurekin» esan nahi du)».

Esnatzean, Jaunaren aingeruak agindua egin zuen Josek, eta Maria emaztetzat hartu zuen.

*Autor: Ana Vieites*

*Traductor: Miren Leanizbarrutia*

# Ipuina:
# "Ogi-labea".

Herrixka batean, guztiak ari ziren jai handirako prestatzen. Familia bakoitzak zerbait eraman behar zuen afarirako: ogia, gozokiak, ardoa, frutak… Baina bazen irina baizik ez zuen emakume edadetua.

Ez zuen laberik. Ez zuen egurrik. Ez zuen besterik.

Lotsatuta, basora atera zen zerbait lortu eta lagundu ahal izateko. Hara eta hona ibili eta, azkenean, harri txiki zuri bero eta argitsua aurkitu zuen sasien artean. Eskuartean hartu eta, berehala, bere barruan zerbait aldatu egin zela sentitu zuen. Etxerako bidea hartzea erabaki zuen.

Iristean, harria mahaiaren gainean jarri eta otoitz egin zuen isilik. Orduan, harria ireki egin zen labea izango balitz bezala eta, barrutik ogi beroa, urre-kolorekoa eta sekulako usain gozoa zuena atera zen.

Saskia ogiz bete eta plazara joan zen. Inork ez zuen inoiz halako ogirik probatu. Denei banatu zien eta denek esker ona adierazi zioten.

Gau hartan, norbaitek esan zuen:

—Ogi horrek badu zerbait berezia.
—Izan ere, bihotzez eginda dago -erantzun zuen adineko andreak.

# Jarduera: “Ogia”.

**Helburua:**
Joseren eta ipuineko adineko andrearen antzera, geuri ere bihotza irekitzea eta munduan itxaropena sorraraztea dagokigu.

Txikia, maitasunez eskainiz gero, besteentzako bizi eta elikagai bihur daitekeela ulertu eta Jesusi abegi egiteko prestatu, garena eta daukaguna emanez.

**Lagungarriak:**
- Saski edo burdin sare hutsa
- Buztin edo sats zuria
- Kandela txikia edo farola
- Musika gozoa amaierarako

**Jardueraren garapena:**
Hasteko, aurreko asteetan landutakoa gogoratuko dugu labur-labur: lehen astean, bat egin genuen elkartea osatzeko (almendrondoa); bigarrenean, gure bihotza zerk gogortzen duen atzeman eta atzean utzi genuen (harria palankanan); hirugarrenean, argia mundura eramateko konpromisoa hartu genuen (kandela-babeslea).

Gaur, laugarren astean, Jesus mundura datorrela eta garena maitasunez eskaintzen dugunean agertzera eman dezakegula ospatuko dugu.

Ebanjelioa eta ipuina irakurri ondoren, buztin edo sats apur bana emango diegu partaideei. Taldekide bakoitzak, munduari zer eskain diezaiokeen pentsatzeaz batera, ogi txiki bat moldatuko du.

Irudi sinplea izan daiteke, ikurra, bere arrastoez apaindutako zerbait… Isilik moldatzen ari direla, galdera honen inguruan gogoeta egin dezakete isilean: “Zein bizi eskain diezaieket besteei?”.

Amaitu ondoren, adineko andrearen labea irudikatuko duen saskian utziko dituzte irudiak. Kandela edo farola piztuko dugu saskiaren ondoan, ogi hori besteentzako janari izango dela sinbolizatuz.

Jarduerari amaiera emateko, musika gozoa jarrita dela, “ogi hau bihotzez eginda dago” errepikatuko dugu eta ondorengo otoitza esango.

# Otoitza.

ABENDUALDIRAKO OTOITZA (Javier Quisma SJ)
*(Javier Quismá SJ)*

Jauna, egunero zatoz, nahiz eta guk, sarritan, ez ezagutu, nahiz eta guri, askotan, gure historian ere gizon egiten zarela sinestea kostatu.

Gauza txikietan zatoz, keinu bakunetan, hitz egiten duten isiltasunetan, gure ingurukoengan.

Irakats iezaguzu zuri itxaroten eta egunero zu antzematen, zure etorrera prestatzen, mundu hau zuzenago, senide artekoago, gizatiarrago… eginez.
AMÉN.

*LA*
**LUZ**
*DE*
*LA*
**PAZ**
*DE*
**BELÉN**

SCOUTS® MSC

# *LA* **LUZ** *DE* *LA* **PAZ** *DE* **BELÉN**

SCOUTS®

MSC

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA AGRITUZ.

**15 - 17 URTE**

**LEHEN ASTEA. 2025eko AZAROAK 30**

## Ebanjelioa.

*Mateo 24, 37-44*

Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan.

Uholdearen aurretik, jan-edanean ziharduen eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte; eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eraman zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute; errotan ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute.

Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko.

Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.

*Autor: Eli Piedra*

*Traducción: Miren Leanizbarrutia*

# Abestia: Jarabe de palo - Eso que tu me das.

Eso que tú me das
Es mucho más de lo que pido
Todo lo que me das
Es lo que ahora necesito
Eso que tú me das
No creo lo tenga merecido
Todo lo que me das
Te estaré siempre agradecido
Así que gracias por estar
Por tu amistad y tu compañía
Eres lo, lo mejor
Que me ha dado la vida
Por todo lo que recibí
Estar aquí vale la pena
Gracias a ti seguí
Remando contra la marea
Con todo lo que recibí
Ahora sé que no estoy solo
Ahora te tengo a ti
Amigo mío, mi tesoro
Así que gracias por estar
Por tu amistad y tu compañía
Eres lo, lo mejor
Que me ha dado la vida
Todo te lo voy a dar
Por tu calidad, por tu alegría
Me ayudaste a remontar
A superarme día a día
Todo te lo voy a dar
Fuiste mi mejor medicina
Todo te lo daré
Sea lo que sea, lo que pidas
Y eso que tú me das
Es mucho más
Es mucho más
De lo que yo nunca te he pedido
Todo lo que me das
Es mucho más
Es mucho más
De lo que yo nunca he merecido
Eso que tú me das

*https://www.youtube.com/watch?v=hE6CsyWv8Zs*

# Jarduera: “Sokaz egindako zirkulua”.

**Helburua:**
Sormena, elkarlana eta hartu-emana sustatu taldean, muturretan korapiloa eginda duen sokarekin.

**Lagungarriak:**
Soka.

**Jardueraren garapena: d:**
Jarduera hau, talde txikietan nahiz handietan egin daiteke.

Partaideak erdian zirkulua osatuz jarrita dagoen sokaren inguruan jarriko dira. Horrela kokatu ondoren, bi eskuez soka hartzeko esango diegu taldekideei. Eragileak agindutako irudiak egin beharko dituzte ahalik eta bizkorren, baina beti sokari oratuta.

Hasteko, irudi errazak izan daitezke, esate baterako, karratua edo triangelua.

Aurrera egin ahala, irudi konplexuagoak eskatuko dizkiegu: gurutzea, izarra, bihotza, zenbakia… Zailtasunak gehitzea nahi izanez gero, begiak estali partaideei, edo hitz egitea debekatu…

Azkenik, ondorengo galderez baliatuz jardueraren balorazioa egingo da:

- Seguru sentitu ziren irudi errazenak egitean? Eta zailagoen kasuan?
- Irudiren bat egin ezinik geratu ziren, zergatik? Gidaritza falta izan zen ala komunikazioa?

# Otoitza.

Eskuak elkarturik,
taldea osatu dugu Zurekin, Jesus.

Taldekidearen berotasuna sentitzen dugu.

Gure indarrak eskuak elkartzen ditu,
Zeuk elkartzen dituzu gure bihotzak.

Eta elkarri irribarre egitean,
zeure poza agertzen da gure ezpainetan.

Zure maitasuna, poza eta indarra
gutariko bakoitzaren barruan daude
eta talde batua izatera bultzatzen gaituzte.

Jauna, elkar maitatzea nahi dugu,
inor kanpoan utzi gabe.

Pozik bizi nahi dugu,
haserreak elkarrengandik urrun ez gaitzan.

Kate sendo izan nahi dugu
eta elkar harturik gauza handiak egingo ditugu.

Inork ez dezala bere burua baztertuta ikusi,
gure artean ez dezagula inor mesprezatu.

Saia gaitezela guztiok
triste edo kezkaturik denari laguntzen.

Zeuk batzen baikaituzu, Jesus.

AMÉN.

*LA*
**LUZ**
*DE*
*LA*
**PAZ**
*DE*
**BELÉN**

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA AGRITUZ.

**15 - 17 URTE**

## Ebanjelioa.

*Autor: Eli Piedra*

*Traducción: Miren Leanizbarrutia*

**BIGARREN ASTEA. 2025eko ABENDUAK 7**

*Mateo 3, 1-12*

Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan honela hots eginez: «Bihozberri zaitezte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza». Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak:

“Ahots bat oihuka ari da basamortuan: Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari”.

Joanek gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari. Jerusalem hiriko, Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen, eta, beren bekatuak aitortzen zituztela, Joanek bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

Fariseu eta saduzear askori, bataiatzera zetozela ikustean, honela esan zien Joanek: «Sugekumeok! Nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela? Ager ezazue zeuen jokabideaz bihozberrituak zaudetela, eta ez pentsa nahikoa duzuenik “Abrahamen ondorengo gara” esatea.

Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak. Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko: fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da.

Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitezten; baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuago da, eta ni ez naiz inor hari oinetakoak eranzteko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa: alea mandioan jasoko du; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko».

# Abestia: Dios es amor - Un corazón.

Estoy aquí
No tengo nada más que dar
Todo en mí, anhela solo adorar
Con manos vacías vengo
Con el corazón abierto
Con todo mi ser yo creo
Dios es amor
Dios es amor
Eres todo lo que yo quiero
Por tu amor volví a nacer
Tengo todo si a ti te tengo
Era ciego y ahora puedo ver
A tus pies mi vida vengo a entregar
Solo en ti encuentro mi lugar, mi hogar
Con manos vacías vengo
Con el corazón abierto
Con todo mi ser yo creo
Dios es amor
Dios es amor
Eres todo lo que yo quiero
Por tu amor volví a nacer
Tengo todo si a ti te tengo
Era ciego y ahora puedo ver
Tú eres todo lo que yo quiero
Por tu amor volví a nacer
Lo tengo todo si a ti te tengo
Era ciego y ahora puedo ver
Con manos vacías vengo
Con el corazón abierto
Con todo mi ser yo creo
Dios es amor
Dios es amor
Tú eres todo lo que yo quiero
Por tu amor volví a nacer
Lo tengo todo si a ti te tengo
Era ciego y ahora puedo ver
Tú eres todo lo que yo quiero
Por tu amor volví a nacer
Tengo todo si a ti te tengo
Era ciego y ahora puedo ver

*https://www.youtube.com/watch?v=Foh6cZqkvBo*

# Jarduera: “Zure bihotza babestu”.

**Helburua:**
Babestearen garrantzia aitortu.

**Lagungarriak:**
- Kartulina gorri bana partaideentzat.
- Guraizeak.
- Folioak.
- Idazteko lagungarriak.
- Zeloa.
- Erraketa, pala edo gauzak gelditzeko balio duen beste edozer.

**Jarduerearen garapena:**
Kartulina gorri bana eman partaideei; ahalik eta bihotzik handiena marraztu ondoren, ebaki egingo dute eta barruan beren bihotza betetzen duten gauzak idatziko dituzte.

Hitzaren tamaina, sentitzen duenaren araberakoa izango da, hau da, zenbat eta handiagoa izan hitza orduan eta garrantzitsuagoa izango da. Gero, folio baten edo batzuetan, era berean idatziko dituzte beren bihotzean eragiten duten gauzak.

Ondoren, ebaki eta pilotatxoak egingo ditu horiekin. Denek amaitu ondoren, banan-banan bihotzak horman zintzilikatuko dituzte eta bakoitzak berea “babestuko” du partaideek aurretik egin dituzten eta bere bihotzaren aurka jaurtiko dituzten paperezko bolatxoetatik.

Jarduerari amaiera emateko, testuinguruan jarri: gehien axola zaiguna babestu egin behar dugu eta pentsamendu eta jarrera txarrak sartzea saihestu.

# Otoitza.

Aita zerukoa, sendatu nire bihotza Abendualdi honetan.

Lagundu bete-betean maitatzen.

Lagundu bete-betean maitatzen.

Eskuzabaltasunez barkatzen
eguberriak eroapenez itxaroten,
egun eta ordu bakoitzari atxikiz,
pozarren izango garela jakinik

Arren eskatzen dizut.

AMÉN.

*LA*
**LUZ**
*DE*
*LA*
**PAZ**
*DE*
**BELÉN**

# BIHOTZAK BATUZ, MUNDUA AGRITUZ.

**15 - 17 URTE**

**HIRUGARREN ASTEA. 2025eko ABENDUAK 14**

## Ebanjelioa.

*Mateo 11, 2-11*

Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen kartzelan, eta bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzera: «Zu al zara «Etortzekoa, ala besteren baten zain egon behar dugu?».

Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuena: itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie.

Eta zoriontsua sinesteko oztoporik niregan aurkitzen ez duena!». Haiek alde egitean, Jesus Joani buruz hitz egiten hasi zitzaion jendeari: «Zer ikustera irten zineten basamortura? Haizeak kulunka darabilen kanabera? Zer ikustera irten zineten bestela? Soineko apainez jantzitako gizona? Jantzi apainekoak errege-jauregietan bizi ohi dira.

Zer ikustera irten zineten, bada? Profetaren bat? Bai, noski, eta profeta baino ere handiagoa. Hartaz dago idatzia Liburu Santuan: Begira , neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik; hark prestatuko dizu aurretik bidea. Benetan diotsuet:

Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik; hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena ere hura baino handiagoa da».

*Autor: Eli Piedra*

*Traducción: Miren Leanizbarrutia*

# Abestia: Marcela Gándara - Guía nuestro camino.

Vuelve a resplandecer, y pon tu paz en mí
Y aquella luz que me lleno
Vuelva a brillar en mi
Y en tu gran resplandor
Guía nuestro camino, por sendas de justicia
Que no nos apartemos más de ti
Vuelve a resplandecer, tu imagen quiero en mí
Has una obra que jamás el tiempo borrará
Y en tu gran resplandor
Guía nuestro camino, por sendas de justicia
Que no nos apartemos más de ti
Guía nuestro camino, alumbra nuestros pasos
Queremos siempre estar cerca de ti
Vuelve a resplandecer en mi
Y que tu gloria y tu
Verdad, puedan mi vida reflejar
Vuelve a brillar
Guía nuestro camino, por sendas de justicia
Que no nos apartemos más de ti

*https://www.youtube.com/watch?v=qOc3876efhE*

# Jarduera: “Argidun bidea”.

**Helburua:**
Jesusen etorrerera prestatu Abendualdian.

**Lagungarriak:**
- Partaide bakoitzeko kandela bat.
- Paper txikia eta idazteko zerbait.
- Pospoloak.

**Jarduearen garapena:**
Eragileak bidea zehaztuko du itzalita dauden kandelekin leku jakin batean, hobe lekua ilun samarra bada. Abendualdian gaudenez, helmugan dagoen Jesusenganaino iristeko geure burua prestatu egin behar dugula azalduko diegu.

Partaide bakoitzak helmugara iristeko hobetu beharko lituzkeen konpromiso edo gauzan idatziko ditu paperean.

Girotzeko, musika jar daiteke. Idatzi ondoren, kandela bat hartu, papera honen azpian ipini eta piztu egingo dute. Taldekide guztiek hau egitean ikusiko da bidea argituta.

Gainera, argidun bidea egiteko guztiek parte hartu dutela eta horrela, beren kandela piztu eta bidean argi eginez, besteentzat argi izan direla konturatuko dira.

# Otoitza.

Presta ditzagun bideak,
badator Salbatzailea.
Atera gaitezen, erromesok,
Jaunarekin bat egitera.
Zatoz, Jauna, gu askatzera,
zatoz, zure herria salbatzera,
araztu gure bizitzak
eta ez zaitez berandutu.

Zeruetako ihintza
munduaren gainera eroriko da,
agindutako Mesias,
haur eginda jaioko da.

Mendiena samurtasuna,
ibaiena esne eta eztia,
gauaren egunsentia
Emmanuelen etorrera.

